

# KORZAK

2016/05/16

## PERSONAIAK:

Korzak. 65 urte. Hartzaindegiko zuzendaria.

Janus. 14 urte. Mutil zurtza.

Miryam. 14 urte. Neska zurtza.

Slomo. 11 urte. Mutil zurtza.

Natka. 9 urte. Neska zurtza.

Stefa. 50 urte. Hartzaindegiko ko-zuzendaria.

Daniel. 25 urte. Ikasle ohia, orain hartzaindegiko laguntzailea.

## Eta gainera:

Gestapoko ofiziala.

Czerniaków. Judutar Kontseiluko burua.

Gancwajch. Judutar burges kolaborazionista.

Gespapoko tenientea

## Gune eskenikoa

Varsoviako Gettoan kokaturiko hartzaindegiko areto bat, erabilera anitzekoa. Baldintza kaskarrak direla eta aldi berean logela (litera zerrenda luzeak), jantokia (mahai luzeak), entsaiu gela, jolastokia, bilera gela...

Ikusleak gune eskenikoan sartzen dira.

Hormetan neska-mutilek idatziriko kartelak daude.

*"Gaur, Abustuak 5., entsaiua."*

*"Joshue-k barkamena eskeini dio Janus-i txokolatina baten lapurretatik."*

*"Batzordeak Sara hiritar mailatik lankide mailara igotzea erabaki du, garbiketa lanetan erakutsitako adorea."*

*"Komunerako tarifak:*

*-Behar txikietarako: bost euli harrapatzea.*

*-Behar nagusietarako, baldean: hamar euli.*

*- Behar nagusietarako, komunean: hamabost euli."*

Ikusleak litera eta mahaietan esertzen dira. Literetan umeen familia argazkiak eta objektu pertsonalak daude.

Natka eta Miryam zopa beroa banatzen ari dira. Ikusleek sartu ahala jasoko dute.

Norbaitek irrati aparailu zahar bat pizten du.

Aparteko toki zehaztu gabe batean, adineko gizon bat ikusten dugu, burusoila, bizar ondo moztua, betaurreko borobil metalezkoak eta gabardina zahar batez jantzia, mikrofonoaren aurrean sutsuki hitz egiten.

#### **Korzak**

Entzule maiteak, urteak dira mikrofono honen aurrean azkeneko hitz egin nuenetik, eta ez dakit inork ezagutuko ote duen nekeak astindutako abots hau; "Doktore Zaharra"-ren ezizenarekin irrati honetan astero hitz egiten zuen gizonarena da. Garai haietan nire pasioaz, nire borrokaz, nire grinaz hitz egin ohi nizuen: neska-mutilen babes eta heziketa, euren eskubideen aldarrikapena.

Korzak hitz egin bitartean, Miryamek zopa zerbitzeari utzi eta korrika irteten da.

#### **Miryam**

Stefa andrea! Stefa andrea! Doktorea!!  
Doktorea irratian ari da!!

Stefa Andrea sartzen da.

**Stefa**

Zer diozu, Miryam?

**Miryam**

Doktorea da. Irratian.

**Stefa**

Baina hori ez da posi...

Stefa isiltzen da Korzak-en abotsa entzutean.

**Korzak**

Jakin nahiko duzue nork eta zergatik  
utzi dion doktore judu zahar honi  
irratira sartzen, eta zuengana heltzen.

Daniel sartzen da.

**Daniel**

Stefa andrea!

Stefak isiltzeko keinua egiten dio, Korzak-i entzuteko.

**Korzak**

Hara ba, inork ez dit baimenik eman.  
Burdin eta odolezko garai hauetan,  
gizajendea izuan eta ignominian  
murgiltzen ari da, beraz, ukatzen  
digutena bortxaz hartu beste aukerarik  
ez zaigu geratzen.

**Daniel**

Horixe esatera nentorren! Korzak  
Doktorea irratian sartu da. Prezintoz  
itxita zegoen, baina baten batek lagundu  
dio sartzen eta aparailuak konektatzen.

**Korzak**

Nahiko nuke orain, lehen bezela,  
neskamutilen heziketari buruzko teoria,  
proiektu eta asmoei buruz hitz egin,  
baina ez dut astirik.

**Stefa**

Ez zenion utzi behar!

**Daniel**

Saiatu egin naiz. Baina ondo ezagutzen  
duzu zuk...

Natka negarrez hasten da.

**Natka**

Zer gertatuko zaio doktoreari?

**Korzak**

Barruan dudan amorruaz hitzegiteko ere astirik ez. Ezta erasotzaileei diedan gorrotoaz, nire ariman ezinbestean itxasten ari den gorroto ilunaz.

**Natka**

Stefa Andrea, zergatik zaude ikaraz? Zer gertatuko zaio?

Stefak Natka laztzantzen du.

**Stefa**

Ezer ez, Natka, maitea.

**Korzak**

Nire arimatik gorroto hori kendu nahiko nuke, baina ezin da, garrastuta dago. Ez dugu beste irtenbiderik, ez da apaltasunaren ordua, ez da isiltzeko edo ezkutatzeko ordua.

Stefa andreak abrigoa hartu eta irtetera doa.

**Daniel**

Nora zoaz?

**Stefa**

Doktorea handik ateratzera, berandu baino lehen.

Miryam beregana doa.

**Miryam**

Stefa Andrea, ez joan, mesedez! Ez dugu doktorea galdu nahi, baina zu ere galtzen bazaitugu, zer izango da gutaz?

**Daniel**

Miryamek arrazoi du, Stefa.

Stefa pentsakor geratzen da.

**Korzak**

Gaur goizean alemaniar soldaduek haurtzaindegira generaman gurdia konfiskatu digute. Hamabost zaku, patataz beterikoak.

**Stefa**

(Danieli) Egia da hori?

**Daniel**

Bai, horrexegatik sartu da irratian.  
Amorratuta zegoen, bere onetik irtenda.

**Miryam**

Zer geratuko zaigu patata horiek gabe?

**Korzak**

Hilabete osoko janaria berrehun  
haurrentzat. Bizirik iratutea ala gosez  
hiltzearen arteko marra.

Stefak abrigua utzi eta abailduta esertzen da, irteteko asmoa  
baztertuz.

**Korzak**

Neska mutilak nekez irauten dute zutik,  
azala besterik ez dira. Azalaren azpian  
nekea, etsipena, amorrua, gorrotoa,  
mesfidantza, pena eta tristura besterik  
ez. Sinistuidazue, lagunak, zaila da  
judua izatea; are zailagoa judu zahar  
bat izatea. Eta zailagoa oraindik gaixo  
dagoen judu zaharra izatea. Gogorra da  
bizitza ume bat daukan juduarentzat, eta  
gogorragoa ume batzu dituenarentzat.  
Baina askoz gogorragoa ehundaka ume  
dituenarentzat, jateko ezer ematerik ez  
duenean!!

**Natka**

(Altzatu eta ohiuka) Ez kezkatu,  
Doktorea, kalera irtengo gara, zaborrean  
hondarrak bilatuko dugu!!

Stefak Natka bildu eta besoetan jasotzen du.

**Stefa**

Ongi, Natka, baina lasai, moldatuko gara  
bestela.

**Natka**

Ez dut nahi doktorea triste egoterik.

**Korzak**

Ate askotan jo dut laguntza eske. Baina  
gure babesleak desagertuz doaz. Batzu  
hil dira, beste batzu ezer gabe geratu  
dira. Eta beste zital batzuk euren  
buruan besterik ez dute pentsatzen.  
Koldarrak, ergelak, ekaitz izugarri  
honetatik salbatuko diren bakarrak

Denak irteten dira.

patxo  
telleria